



Gorka Zozaia
Kimikaria

«Eman ta zabal zazu?»

Universidad del Pais Vasco duen leloak joko asko ematen du. Nire unibertsitateko garaian lotura erraz egiten zen, adibidez, campusetan nahieran ibiltzen ziren poliziek borrekin eman eta izua zabaltzen zutenean. Leioako campuseko kafetegi handiko komunetan bazen lotura hori jasotzen zuen pegatina polit askoa. Gaur, egunkariak irakurtzea besterik ez da behar lotura hori ikusteko. Noski, gai kezagarria da askatasuna zimendu beharko lukeen eremuan pentsamendu eta ekinbide jakin baten aurkako *razzia* bat izatea, baina ez da hori gaur gaia. Gaur gaia da laster ez dela poliziekin babestu beharreko unibertsitate ere izango, jakintzaren instituzio hau oraindik unibertsitate kontsidera badaiteke.

Pasa den asteazkenean eman du berria Iñaki Goirizelaiak berak: UPV-EHUK abian jarri du ikastegiak berrantolatzeke prozesua. Ez nituzke nik bere hitzak desitxuratu nahi eta hitzez hitz kopian ditut hemen **prozesu honen helburuak**:

- 1.- Lehiakortasuna eta ikusgaitasuna hobetzea, toki- nahiz nazioarte-mailan.
- 2.- Graduoko tituluen eskaintzak graduondokoarekin duen erlazioa hobetzea.
- 3.- Irakasle guztiak ikerketa-jardueran sar daitezen bultzatzea.
- 4.- Ikastegien kanpo-proiektzioa hobetzea.
- 5.- Jarduera akademikoa hobetzea pizgarrien politika egoki baten bitartez.
- 6.- Atlantikoko arkuko unibertsitateekin eta inguruko ehun sozio-ekonomikoarekin loturak ezartzen direla bultzatzea.
- 7.- Gobernantza-eredu berri baterantz aurrera egitea, irakasle onenak kontratatzeke eta ikasle onenentzat unibertsitate-rik erakargarrienetako bat izateko.

Helburuokin batera, ikastegien murrizketa plana bera ere ezagutarazi da, egungo 31 ikastegietatik 20ra igarotzeko plana baita aurkeztu berri dena. Bizkaian 13tik 9ra, Gipuzkoan 11tik 7ra eta Araban 7tik 4ra.


Bere garaian, Bolonia Prozesuarena saltzen saiatzen zirenean sikiera hitz politikak erabiltzen zituzten, eta Goirizelaiak berak 68ko maiatzeko ikasle eskariekin lotzen zuen prozesu neoliberal. Hamar urte ge-

roago ez dute inor limurtzen eta zuzenean mintzatzen dira lehiakortasunaz eta honek eskatzen duen jarduera unibertsitario-merkantilaz, hots; finantzabideak bermatu eta gastuak murrizteko jardueraz. Finantzabideak enpresa parte hartzaileak, ikasleen tasak eta finantziario publiko “lehiakorra” (hots, finantziario pribatu gehien duenari diru publiko gehiago) direla jakinda, berehala ulertzen dira helburuok. Finean, unibertsitatea –eta segidan hezkuntza sistema osoa– ez da dagoeneko (inoiz izatera heldu bada) herritarren hezkuntza eskubideak eta gerritaren garapen kultural-intelektuala bermatzeko tresna, baizik eta merkatu zehatz batean jokatzeko duen enpresa.

Asko luza ninteke hemen unibertsitatearen enpresaratze prozesuaren ondorioekin, eta, zentratzearen, normalean bigarren plano batean gelditzen den faktore garrantzitsu batean jarriko dut arreta: zientzia komunitate edo unibertsitateen ikasketa jardunaren enagerazioan. “Nature” aldizkariaren editore Philip Balli egindako elkarrizketa bat irakurri berri

dut eta hark ere oso larritzat ikusten du egun nagusi den jarduera zientifikoa: ahalik eta paper gehien eta azkarren idaztea, eta kito. «Egungo ikerlari gazteek presio handiegia dute paperak idazteko, eta horrek ultraespezializatzerara daramatza, zientziak diziplinartekotasuna behar duenean», iritzi dio.

UPVrentzat Eduardo Chillidak egindako logotipoak, zientziaren arbola irudikatzen du, enbor beretik hamaika adarretan zabaltzen dena. Nik ere oroitzen dut kafetegi berean batzen ginelan lehen karrera ezberdinetako ikasleak, denbora luzez, elkartrukean. Gaur, ordea, polit-polit apaindutako esparru gero eta espezializatuago eta atomizatuago bat ikusten dugu, jarduera zientifikoko okerrean sakontzeko prest dena, tamainako erakunde batek beharko lukene printzipio zientifikoetatik erabat aldentuta. Lema aldatzeko ordua heldu zaio herritarren sosekin altxa den erakunde honi. Ez da eman, jaso da. Ez da zabal, itxi da. Zientziaren arbola, gaur, abilduta dago, eta oholetarako prest. •



UPV-EHUrentzat Eduardo Chillidak egindako logotipoak, zientziaren arbola irudikatzen du.